

**Usteak, Ustel!**

Argitu ditzagun zalantzak...

# Migrazio- fluxuaren joerak eta harrera- gizartearen ahalmen integratzailea

# 15.

---

***Migrazio-fluxuaren joerak eta  
harrera-gizartearen ahalmen  
integratzailea***

Miguel—Laparra Navarro

## Zer posiziotan dago Espainia Europako migrazio-sisteman, eta zenbateraino datoz bat joera horiek Euskadikoekin?

Espainiak 748.000 immigratzaile erregistratu zituen 2019an. **Sarrera-fluxu horrekin, Europar Batasuneko bigarren herrialdea da termino absolututan immigrazioari dagokionez, eta herrialde handietako lehena termino erlatiboetan**, urtean 16 immigratzaile jasotzen baititu 1.000 biztanleko; hau da, Alemaniak baino % 40 gehiago, eta Frantziak 2018an jasotako immigratzaile kopurua halako bi.


**Euskadin, fluxuaren intentsitatea txikixeagoa da:** urtean 12 immigratzaile 1.000 biztanleko; eta orobat kokatzen da posizio nabarmenetan, Austriaren eta Belgikaren antzeko mailan. Horrez gain, alde nabariak daude estatuarekin alderatuz gero, fluxuaren osaerari dagokionez (esaterako, iristen den biztanleriaren jatorria eta sexua).

Dena den, antzekotasun garbiak daude Euskadiren eta estatuaren artean, azken hamarkadako migrazio-fluxuaren dinamikari dagokionez. **Bi lurraldeetan, ekonomia bilakaerak eragin handia izan du immigrazioan: immigrazioa asko jaitsi zen atzeraldian, eta azkar hazi zen 2014tik aurrera, hazkunde ekonomikoa eta enplegua suspertu zirenean.**

2007an, ia milioi bat immigratzaile sartu ziren Espainian. Une horretatik aurrera, fluxuak behera egin zuen poliki-poliki, eta % 70 baino gehiago egin zuen behera, 2013an. Urte horretatik aurrera, susperraldia ere biziagoa izan zen 2019ra arte. Bilakaera lauagoa izan zen beste herrialde batzuetan, hala nola Frantzian, Erresuma Batuan, Italian eta Suedian. Espainian, ziklo ekonomikoak beste herrialde batzuetan baino eragin handiagoa izan zuen migrazio-fluxuan, eta, hori ulertzeko, kontuan hartu behar da Espainian ekonomia-krisiak eragin handiagoa izan zuela eta jardueraren murrizketaren ondorioz Espainian beste herrialde batzuetan baino gehiago egin zuela behera enpleguak. Horren atzean, migrazio-eredu bat dago, eta migrazio-eredu horretan lan-migrazioa da nagusi, eta leku gutxiago dute bestelako migrazio motek, hala nola familien berrelkartzeak (esaterako, Frantzian garrantzi handiagoa du) eta asilo-eskaerak (esaterako, Suedian garrantzi handiagoa du).

Nolanahi ere, migrazio-fluxuaren *doikuntza erdiautomatiko* horrek galarazi egin du bertako lan-merkatuan tentsio handiagoak izatea, eta ziur asko berekin ekarri du biztanleria immigratzailearekiko harremanak ez okerragotzea eta gatazka gehiago ez sortzea. Horrenbestez, **biztanleria immigratzaileak lan-merkatuan izandako eragin moteltzailea bikoitza izan zen: batetik, sarrerak murriztu ziren** (eta irteerak handitu), migrazio-saldoa negatiboa izatera iritsi arte, **eta, bestetik, immigratzaile gehienak bertan geratu ziren, eta beren gain hartu zuten sortutako langabeziaren parte handi bat.**

### Immigratzaileen sarrera-fluxua Europar Batasuneko herrialde batzuetan



Iturria: egileak berak egina, Eurostaten datuak erabiliz

## **Baina migrazio-fluxua krisialdian ere mantentzen da. Ez al da hori arazo bat, migratzaile berriak laneratzeko?**

Bai, hala da. Nahiz eta krisi-urteetan sarrera-fluxua irteeren gorakadarekin konpentsatu eta urte batzuetan migrazio-saldoa negatiboa izan, krisiaren unerik latzenez, 2013an, 287.772 immigratzaile sartu ziren estatuan. Hortaz, bere horretan mantendu ziren harrera-prozesuak eta lehen kokalekua aurkitzeak berekin dakartzaten premiak; besteak beste, oinarrizko premiak asetzea, etxebizitza bilatzea, egoera erregularizatzeko aholkularitza juridikoa jasotzea, osasun-sistemaz baliatu ahal izatea eta hezkuntza-sisteman sartu ahal izatea. Beste migratzaile batzuk herrialdetik joateak ez du desagerrarazten, ez eta konpentsatzen ere, premia horien zati handi bat.

**Sartzeko uneak baldintzatu egin ditzake immigratzaileek lana aurkitzeko dituzten aukerak**, bai eta garaiaren arabera ugariagoak edo urriagoak diren beste baliabide batzuk eskuratzeko dituzten aukerak ere.

## Zergatik iristen dira immigratzaile gehiago Espainiara?

Krisialdiaren aurretik munduan hainbeste pertsonak Espainia aukeratzen baldin bazuten beren migrazio-proiektuaren (alegia, beren bizitza-proiektuaren) hel-mugatzat, eta azken urteetan hainbat eta hainbat pertsonak migrazio-proiektu bera izan baldin badute, hori azaltzen duten arrazoi serioengatik izan behar du. Nekez pentsa dezakegu lilura bat dela, seguru desagertuko dena, edo pertso-na horiek guztiak oker zeudela eta daudela. Hain zuzen ere, immigratzaileen ikuspuntutik, Espainia helmuga seguruagoa da (Gibraltarko itsasertzetik edo Kanarietatik datorren % 5 ingururentzat izan ezik). **Espainian, ziur asko, erra-zagoa da hasieran ezkutuko ekonomian bizirauteko aukerak aurkitzea eta gero prestakuntza gutxiko enpleguen sektore zabal batera sartzea. Horrez gain, Espainian, badaude aukerak hainbat moduren bidez epe ertainean egoera erregularizatzeko, eta irizpide unibertsalistak erabiltzen dira oina-rrizko zerbitzuak eskuratzeko, hala nola hezkuntza eta osasuna.** Munduko migrazio-sistemetako beste xede-herrialde batzuen egoerari erreparatuz gero, kostata aurkituko dugu antzeko testuingururik.

## Nondik datoz immigratzaile gehienak Euskadira? Nola baldintzatzen du migratzaileen jatorriak haien integrazio-prozesua?


Pertzepzio sozialaren arabera, Afrikakoak dira immigratzaile gehienak, batik bat Marokokoak, baina hori ez da horrela. **2013. urtearen osteko migrazio-fluxuaren susperraldian, oso nabarmena izan zen Latinoamerikako fluxua, estatu osoan, baina batik bat Euskadin.** 2019an, Euskadin sartutako immigratzaileen % 55etik gora Erdialdeko Amerikatik, Hego Ameriketatik eta Karibetik etorri zen. Kolonbia, Nikaragua, Venezuela eta Honduras dira munduko eskualde horretako fluxu berrienaren jatorrizko herrialde nagusiak. Afrikatik iristen ari den migratzailea, aldiz, ez da % 16ra iristen (% 9,2 Marokotik). Hortaz, krisialdiaren osteko garai honetan, ***immigratzaile talde nagusitzat latinoamerikarrak dituen migrazio-eredu*** bat ari da sendotzen, mendearen hasieratik osatzen joan dena.

Horrez gain, **Latinoamerikako immigrazioaren kasuan, 3 immigratzailetik 2 emakumeak dira**, eta herrialde batzuen kasuan, bereziki (Ekuador, Kuba, Dominikar Errepublikak, Argentina eta Venezuela), 5 immigratzailetik 1 nazionalitate espainiarrarekin etortzen da (lehenagotik migrazio-prozesu bat egin duelako edo espainiarren ondorengoa delako). Hori guztia, hizkuntzarekin, kulturarekin eta erlijioarekin lotutako faktoreekin batera, oso lagungarria izan daiteke pertsona horientzat, xede-gizartean gizarteratzeko.

Alderantziz, gerta daiteke Afrikatik datozen immigratzaileek zailtasun handiagoei aurre egin behar izatea; izan ere, harrerako biztanleriak pertzepzio negatiboak eta jokabide mesfidatiagoak ditu haiekiko, Ikuspegiren txostenek behin eta berriro agerian jartzen duten bezala.

**Immigratzaileak gizarteratzeko politikak are gehiago segmentatzera bultzatu beharko gintuzke horrek, talde batzuek eta besteek dituzten zailtasun desberdinei heltzeko.**

## Euskadin sartzen diren immigratzaileen fluxua, nazionalitatearen arabera



Iturria: egileak berak egina, kontuan hartuz Bizileku Aldaketan Estatistika (Espainiako Estatistika Institutua)



## Integratzeko ahalmen bera al dute herrialde guztiek? Zer ezaugarri izan behar ditu herrialde batek biztanleria immigratzailea integra dadin errazteko?

Jakina ezetz. Zalantzarik gabe, **biztanleria immigratzailearen ezaugarriek baldintzatu egiten dute gizarteratzearen dinamika; baina, batik bat epe luzera, oraindik ere erabakigarriak dira harrera-gizartearen ezaugarriak.** Harrera-sistemak, lan-merkatura sartzeko erraztasunak, gizarte-politiken gizarteratze-ahalmenak eta biztanleriak immigrazioarekiko dituen jokabideek zehazten dute zenbaterainokoa den gizarte jakin baten ahalmen integratzailea.

Integrazio-prozesua, onerako eta txarrerako, **jatorrizko herrialdean migrazio-proiektua egiten denetik** hasten da, eta zenbait faktorek baldintzatuko dute: migrazio-ibilbidearen gorabehera eta baldintzek, sartzeko bide eta moduek (bereziki, erregulartasunagatik edo irregulartasunagatik) eta migrazio-proiektuak berekin dakartzan faktore baldintzatzaileek.

Bigarrenik, erakundeek eta GKE-ek edo herrialdean lehenagotik kokatutako komunitate etnikoen laguntza-sareek biztanleria immigratzaileei ematen dieten harrerak asko baldintzatzen du nolakoa izango den immigratzaileen hasierako egoera.

Jakina, **lan-merkatu sartu ahal izatea funtsezko faktorea da**. Askok aldatzen da herrialde batetik bestera immigratzaile iritsi berriek zer enplegu lor ditzaketan. Kasu batzuetan, hala nola Eskandinaviako herrialdeetan, immigratzaileak nekez irits daitezke eskuragarri dauden enpleguetarako eskatzen den prestakuntza-mailara. Beste kasu batzuetan, lan-merkatuaren erregulazioak eta ikuskapenak oso zail egiten dute bestelako bideak aurkitzea; hori gertatzen da, esaterako, Europako erdialdean. Europako hegoaldeko herrialdeetan, enplegu irregularren ehunekoa handiagoa da, eta prestakuntza apaleko enpleguen eskaria handiagoa; hortaz, biztanleria immigratzaileak aukera gehiago ditu, argi eta garbi.

Horrez gain, hor daude **gizarte-politikak**, eta nabarmentzekoa da biztanleria immigratzaileari osasun-sisteman, hezkuntza-sisteman eta etxebizitza sozialen programetan sartzeko ematen dioten aukera. Kasu horretan ere, gauzak asko aldatzen dira herrialde batetik bestera.

Eta ezin dugu ahaztu **oso garrantzitsua dela orobat harrerako biztanleriak biztanleria immigratzailearekiko duen pertzepzioa**. Jakina, arrazakeria eta xenofobia ireki eta esplizitua lehen mailako oztopoak dira; dena dela, modu sotilago batean, irekitasuna eta harremanak izateko, elkar ezagutzeko, harremanetan jarduteko eta pertsonen arteko harremanak lotzeko borondatea ez dago inongo legetan, eta ezin du gobernu bakar batek ere bermatu, baina behin betiko marka ditzake immigratzaileek beren bizitza-proiektuak garatzeko eta gizarte-bizitzako gune ugarietan erabat integratzeko izango dituzten aukerak. **Bikote mistoak sortzea bi komunitateren arteko integrazioaren adierazle klasiko bat da**, eta estatuan, oro har, jatorriz immigratzaileak diren biztanleen % 23k Espainian jaiotako bikotekide bat du. Hori ez da berri txarra.


## Errazagoa ala zailagoa al da orain immigratzaileentzat gure gizartean gizarteratzea?

Orain arte esandakotik **ondoriozta dezakegu badaudela faktore positibo batzuk, biztanleria immigratzailea integratzeko ahalmena hobetzen dutenak**: migrazio-fluxu berrietako immigratzaile gehienak jatorri berekoak izatea, gutxiengoa izan arren esanguratsua den parte bat espainiar nazionalitatearekin etortzea, irregulartasuna oso modu nabarmenean murriztu izana, bertan kokatutako komunitate etnikoak izatea, lehen harrera errazten duten sareak egotea, emakume eta adingabe asko egotea (4 haurretik 1 atzerrian jaiotako ama batena da), eta harrera-gizarteak eta bertako erakundeek migrazio-fenomenoaren kudeaketan izandako esperientzia. Horiek guztiak gizarteratze-prozesuak erraztu beharko lituzketen faktoreak dira.

Badira, dena den, **faktore negatibo garrantzitsu batzuk ere**: nabarmentzekoa da azken krisialdian, 2008tik 2014ra artekoan, laneratze-eredu bat indartu zela oso prekariora eta lanpostuetan gora egiteko oso aukera gutxi ematen zituena. **Ekonomia-krisi luze eta handi horren ondorioek eta krisiari aurre egiteko abian jarritako doikuntza-politiken ondorioek sakondu egin zuten gizar-terte-arrakala, eta gizarte-bazterketa larriak % 45 egin zuen gora estatuko biztanleria osoan**, Foessaren azken txostenaren arabera. Jakina, biztanleria immigratzaileak are gehiago pairatu ditu ondorio horiek: **gizarte-bazterkeria larriaren intzidentzia 3 aldiz handiagoa da biztanleria immigratzailearen artean espainiar nazionalitatea duen biztanleriaren artean baino**, eta 2018an, zenbait urtez ekonomia- eta enplegu-hazkundera izan ondoren, bikoiztu egin da atzeritarren kasuan, 2007. urtearen aldean.

Testuinguru horretan, **gizarteratze- eta laneratze-politikak biztanleria osoarentzat indartzeak oso eragin positiboa izan lezake biztanleria immigratzailearengan aurreko krisialdian galdutakoa berreskuratzeko**, baldin eta politika horiek immigratzaileen premien eta ahalmenen arabera diseinatzeko. Eta hori lagungarria izango litzateke Covid-19aren eraginez ikusten ari garen gizarte-bazterkeriako prozesu berriei aurre egiteko.

## Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia, nazionalitatearen arabera. Espainia 2007-2018



Iturria: egileak berak egina, Foessaren VIII. txostenerako datuen arabera

## Eta zer egin dezakete autonomia-erkidegoek beren ahalmen integratzailea hobetzeko?

Espainiako eskumen-sistema ahuldade nabarmen batean dago oinarrituta: **autonomia-erkidegoei dagokie biztanleria immigratzailearen gizarte-premiei erantzutea eta immigratzaileen gizarteratzean eragina izan dezaketen programa guztiak kudeatzea**; alegia, etxebizitzarako, osasunerako, hezkuntzarako eta gutxieneko diru-sarreretarako sarbidea. **Dena den, ez dute inolako eraginik migrazio-politikei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, ez eta migrazio-fluxuen** (lana, familien berrelkartzea, asiloa eta babesa, ikasketak, inoren kargura ez dauden adingabeak eta abar) **erregulazioan eta kontrolean ere, horiek estatuaren eskumenak baitira**. Festa batean hornigaien arduradunak gonbidatu kopurua eta haien gustuak zein diren ideiarik izango ez balu bezala izango litzateke. Zentzuzkoa izango litzateke migrazio-politikaren oinarritzko alderdi horiei buruz hartzen diren erabakiek kontuan hartzea lurralde bakoitzeko inguruabar espezifikoak; alegia, lan-merkatuaren egoera (alde handiak baitaude lurraldeen artean) eta zerbitzu jakin batzuen unean uneko egoera eta eskuragarritasuna.

Urte askoan zehar, estatuaren koordinazio- eta lidergo-lanaren falta igarri da, biztanleria immigratzailea integratzeko politikak bideratzeko orduan, eta uste-kabea amaitu dira horretarako jartzen ziren baliabide espezifiko urriak. Baina hortik harago, **beharrezkoa da mekanismoak eraikitzea autonomia-erkidegoek aukera izan dezaten beren egoeraren arabera egokien iruditzen zaien moduan eragina izateko migrazio-fluxuan**, eta, horretarako, eskumenen arloarekin lotutako legeak berrikusi behar dira.

Euskadikoa bezalako kasu batean, migrazio-fenomenoaren bilakaerak modu nabarmenean taxutuko ditu etorkizuneko euskal gizartearen egitura eta dinamika. Autonomia-erkidegoek eskumen-maila handiagoa izateak berekin ekar ditzake, epe laburrean, «deserosotasun» politiko batzuk, fenomeno horren inguruan dagoen sentsibilitate sozialagatik (gai korapilatsu bati heltzen baitzaio), baina orobat dakar berekin «herrialde bat eraikitzea» esapiderearen bidez adierazi ohi den prozesuan eragiteko ahalmen handiagoa izatea.

Alde horretatik, **euskal gizartearen ahalmen integratzailea hobetzeko balizko bideak dira hauek: biztanleria immigratzaileari laguntzeko estrategian sakontzea, baliabideetarako sarbidea errazteko; ahalmen integratzailea handiagotzeko gizarte-politikak garatzea; kulturen arteko topaguneak ezartzea, eta lan-segregazioa eta diskriminazio etnikoa biztanleria immigratzailearen gizarteratze-prozesuetan jartzen ari diren oztopoak gainditzen saiatzea.**

## **Historikoki, Espainia gutxi inplikatu da biztanleria errefuxiatuaren eta asilo-eskatzaileen harrerarekin. Egon al da horretan aldaketarik Europako «errefuxiatuen krisiaren» ostean?**


Bai, hala da: historikoki, Espainia ez da izan herrialde ona errefuxiatuentzat. **Asilo- eta babes-sistema ahula da, baliabide gutxi eta administrazio-egitura eskasa baititu.** Sistema horren funtzionamenduaren oinarria da ahalik eta eskaera gutxien jasotzea, eskaeren ebazpena atzeratzea eta eskaera gehienei ezezkoa ematea. Funtzionamendu-oinarri horiekin, errefuxiatuen eta asilo-eskatzaileen fluxua beti izan da Espainian migrazio-fluxuaren guttizkoaren oso zati txiki bat. Hamarkada honen erdira arte, **Espainian, asilo- eta babes-eskatzaileak Europar Batasuneko eskaeren guttizkoaren % 1 inguru ziren, eta antzeko ehuneko bat estatuko migrazio-fluxuaren guttizkoarekiko.**

2015etik aurrera, agian Europako «errefuxiatuen krisia» delakoaren ondorio zuzen gisa, errealitatea nabarmen aldatu da. Nazioarteko babes-eskaerak asko ugaritu ziren, eta 2019an, EBko asilo-eskatzaileen guttizkoaren % 17 ziren. Espainiara iritsitako immigratzaileen % 16k nazioarteko babesa eskatu zuen. Ehuneko hori handixeagoa zen Euskadin: migrazio-fluxuaren % 18.

Dena den, pentsa litekeenaren kontrara, gorakada hori ez da bideratu Ekialde Hurbileko gatazken ondorioz lekualdatutako biztanleriari harrera egitera. 2019an, Espainian asiloa eskatu zuten lau pertsonatik hiru Venezuelatik, Kolonbiatik, Hondurasetik, Nikaragutatik eta El Salvadorretik zetozen. Orain, erantzunak positiboagoak dira, ebazpenen % 72 baita aldekoa, **baina % 3ri soilik ematen zaio errefuxiatu-estatutua, eta erantzunak nagusiki (% 66) nazioarteko babes-programetan oinarritzen dira.**

Hortaz, Espainiako asilo- eta babes-politikak indartu egin du gure migrazio-sistemaren eredia; hau da, immigratzaile talde nagusizat latinoamerikarrak dituen eredia.

### Asilo-eskaeren bilakaera Espainian eta European



Iturria: egileak berak egina, Eurostateko datuak erabiliz

## Garai hartan, autonomia-erkidego gehienek asilo- eta babes-eskatzaileen harreran lan-kidetzan aritzeko borondatea agertu zuten, eta Euskadi «Share» ekimenaren buru izan zen, arazo hori ebazteko erantzunkidetasun handiagoa lortzearren. Nola egin dezakegu aurrera norabide horretan autonomia-erkidegoak gehiago inplikatzeke eta erantzunkidetasuna izateke biztanleria errefuxiatuaren harreran?

Kasu horretan ere, **nazioarteko babesa** (mota batekoa zein bestekoa) **eskatzen duten pertsonei harrera egiteko gaitasuna indartu nahi bada, badirudi hauek inplikatzea dela gakoak: estatu azpiko erakundeak, tokian tokiko erakundeak eta, oso modu berezian, autonomia-erkidegoak**, haiek baitira hasierako kokapena eta gerorako gizarteratzea bideragarri egiten duten baliabideen kudeaketaren erantzule nagusiak, baliabide horien artean daudelarik etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak (estatuko laguntza-programa agortzen denean). Hori dela eta, orobat izango litzateke beharrezkoa eskumen-eredua alderdi horri dagokionez berrikustea: batetik, **autonomia-erkidegoei aukera emateko asilo- eta babes-politikarekin lotutako erabakietan parte hartzeke, eta**, bestetik, **nazioarteko babesa eskatzen duten biztanleentzako gizarte-arretako programak deszentralizatzeko.**



## **Espainiako diskriminazioari buruzko zure ikerlan batean, gizarte espainiarraren «tolerantzia selektiboaz eta diskriminazio intentsiboaz» mintzatu zinen. Zer esan nahi zenuen horrekin? Nola baldintzatzen ditu diskriminazio etnikoak biztanleria immigratzailearen integrazio-prozesuak?**

Talde jakin batzuen diskriminazioa, tratu desberdina, da biztanleria immigratzailearen gizarte-bazterkeriaren dinamika sortzen eta errepikatzen duten mekanismoetako bat. Oro har, **biztanle espainiar gehienek nahi dute gizarte askotarikoagoa, tratuan (eta emaitzetan ere) berdinzaleagoa eta desberdintasunarekiko tolerantagoa**. Dena den, nahiko zabaldua dago nazionalitate espainiarra dutenek eremu eta baliabide jakin batzuk eskuratzeko duten lehen-tasunaren justifikazioa, eta are zabalduago dago talde jakin batzuk gaitzesteko joera, bai nazionalak (ijitoen komunitatea), bai jatorri atzerritarra dutenak (Afrikako immigratzaileak, bereziki magrebtarrak, eta Europa Ekialdeko immigratzaile erromaniak).

Jokabide eta erabaki diskriminatzaileen haztegi ezin hobea da hori; jokabide eta erabaki diskriminatzaile horien eraginez, enplegu-emateek oztopatu egiten dute talde horietako kideek enplegua eskuratu ahal izatea, eta etxejabeek eragotzi egiten diete etxebizitza egoki bat eskuratu ahal izatea, bi adibide ematearren.

Bereizkeria mota guztien artean, badakigu bereizkeria etnikoa dela gogorre-  
na eta ondorio larrienak dituena. Lotura estuena du beste bereizkeria mota  
batzuekin (genero-bereizkeria, adinagatikoa, erlijioagatikoa, hizkuntzagatikoa,  
sexu-orientazioagatikoa...), eta horrek areagotu egiten ditu bereizkeriaren on-  
dorioak: **bereizkeria anizkoitza** deritzo horri. Horrez gain, gehien agertzen den  
bereizkeria da gizarte-interrelazioko eremu eta guneeetan (lanean, etxebizitzan,  
aisialdiko guneeetan, zerbitzu publikoetan...): **arlo ashotako bereizkeria** esan  
diezaiokegu horri. Ezaugarri horiekin, bereizkeria etnikoa, talde batzuentzat,  
behin eta berriz errepikatzen den esperientzia bat da, eta etengabe dago be-  
ren eguneroko bizitzan. Horren ondorioz, beren «gutxiagotasuna» barneratzera  
eta berezkotzat hartzera daramaten prozesu psikosozialak gerta daitezke, edo  
orobat gizarte osoaren kontrako gatazkazko erreakzioak. Bi aukera horiek argi  
eta garbi ez dira batere onak guztion onerako. Horregatik, **bereizkeriaren aur-  
kako borrokak, eta bereziki bereizkeria etnikoaren kontrakoak, lehentasun  
handia izan behar du politika publikoetan.**

## Zer eragin izango du etorkizun hurbilean Covid-19aren krisiak biztanleria immigraztailearen fluxuan eta gizarteratzean?

Aurreko krisian ikusitakoa kontuan hartuta, gerta daiteke, arriskua nabaria baita, Covid-19aren ondorioz enpleguan eragin handia izango duen beste ekonomia-krisi bat gertatzea, eta **ekonomia-krisi horrek biztanleria immigraztailearen gizarte-bazterkeriako prozesuak areagotzea eta pobrezia-egoerak ugaritzea**. Egia da krisi honi erantzuteko politikak gizarte-babeserako mekanismoak indartu dituztela (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, langabeziagatiko prestazioak, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, enpresentzako eta autonomoentzako diru-laguntzak...) eta ez dutela zerikusirik aurreko krisialdiari emandako erantzunarekin; hau da, 2012tik 2014ra artean ikusi genituen gastu-murrizketekin eta gizarte-programen murrizketekin. Baina oso kontziente izan behar dugu orain euri zaharraren gainean ari duela berria eta aurreko krisialdiaren sortutako gizarte-desberdintasunak gainditzetik oso urruti gaudela oraindik.

**Covid-19ak talde jakin batzuegan izan duen eragin diferentzialak ez du, antza denez, biztanleria immigraztailearen tratuan bereizkeria-prozesurik abiatu.** Badirudi orain arte bertan behera gelditu direla «seinalatzeko» saioak, berekin estigmatizazio-arriskua dakartenak, eta badirudi zerbitzu publikoetako tratua, oro har, zerbitzu horiei exijitzen zaien berdintasunaren printzipioaren araberakoa dela.

Baina dagoeneko ziur dakigu **Covid-19a gizarte-despreekotasunak areagotzen ari dela hiru pausotan**, eta are gehiago eragiten diela biztanleria immigratzaileari eta Espainiako gizarteko beste talde baztertu batzuei. **Lehenik eta behin, badakigu gaixotasunak eragin handiagoa duela talde baztertuenetan, haien lan-baldintzengatik** (prebentzio gutxiago), **bizi-baldintzengatik** (pilaketa gehiago eta aireztapen gutxiago) **eta** babesteko elementuak **erosteko ahalmen mugatua dutelako**. Bigarrenik, **pandemiari aurre egiteko ezartzen ari diren mugikortasun-mugek gehiago eragiten diete biztanle immigratzaileek izan ohi dituzten prestakuntza gutxiko enpleguei**, hala nola ostalaritzari eta herriz herriko salmentari, non nekez aplika baitaiteke telelana. Mugikortasun-mugek orobat eragiten diete, asko eragin ere, enplegu informalei, eta enplegu horiek dituztenek ezin dute beren jarduna justifikatu ere egin. Hirugarrenik, **abian jarritako gizarte-babeserako mekanismoak**, hala nola aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eta langabeziagatik babesa, **askoz gutxiago iristen dira, edo ez dira batere iristen, biztanleria immigratzailearen zati baten lan-arlo horietara**. Horregatik guztiagatik, pentsa daiteke mugikortasun-mugak eta enpleguan aurreikusten diren zailtasun berriak jada migrazio-fluxua moteltzen ari direla. Aurreikuspenen arabera, dagoeneko bertan kokatuta dagoen biztanleria immigratzaileak zailtasun handiagoak izango ditu etorkizunean: beste behin ere proban jarriko da immigratzaileek lehendik argi asko erakutsi duten erresilientzia-gaitasuna.

